Euskel-Etxola

EUZKADI GUSTIKO IZPARRAK URRUTIZKIÑEZ TA BIDAIZ IDAZKIYAK KIRIKIÑO'RI

Emakumea eta Aberria

Emakumeak bai, baña gizonak ere bai

Ezer baño len, nere poza azaldu bear diot "T. T. T."-ri, berak aipatzen ditun "emakume itxusi, arpegi gorri-gorri-dun..." oyekin bat egiten ez gaitulako. Noski igarri du ayengandik guregana dagon aldea; ayek igitzen zitun zergatitik, gu igitzen gaitunera dagon aldea; eta au gure poza, zein zein geran ezagutzen gaituztela ikustean.

"Emakume itxusi, arpegi gorri-gorri-dunak, ardaoz betcta ba'lebiltz lez, oski ikaragarriak oñetan, txakur zikin bat albuan"... "etziran emakume oneik gixonen goguak eurenganatzeko egiñak".

Egia; ezta ere etziran Euzkadi'n Jelaldez igitzen geranon gogoak tinkatzeko egiñak; ez diran bezela gure gogoak tinkatzeko egiñak, beste emakume kopin-antzera arpegia margoztuta, nabarmenkeria dariotela, txakur garbi bat besoetan, eder-eder, atsegin-atsegin, gizonen gogoak eurenganatzeko egiñak diran oyek ere.

Auxe da gixonen gogoak tinkatzen ditun emakumea; laztan, maiteki, loisin-eske datorkiona; bere bearkunak betetzen baño, gizonen buruak berotzen obeto dakiana; emakumearen baño pinpilinpauxaren antzeyago duana; emazte zindo eta ama-on-gaya baño, gizonaren zama geyago dana; ta "basterrik eskutuenian egoten diran zai gozuendun lorerik bikañenak" une batzuetan goratzeko aipatu arren, beren basterrean aztuta utzi oi ditu gizonak.

Onelako zerbait gertatzen zaye euzkotar gizonai ere, beste alde gustietako gizonen gaitza bera dute; gustiak ezpa'da ere, askok bai beintzat. Edonori, loretegi eder baten sartzean gertatu oi zayona: eskutuan, belar artean jayo dan lili usai gozodunaren billa ekin baño len, loretegiaren erdian, eder-eder, guzien gain nabarmentzen dan larrosari eckua egotzi, naiz ta gero kertenean zitun arantzak min emanda ¡ai! egin bearrean arkitu.

Esango didate, beste orrenbeste egiten degula emakumeak gizonakiko, eta au ere ez da gustia gezurra; baña emakumietzaz asi giñan; gizonezkoan gogoak eurenganatzeko egiñak diran emakumietzaz.

Gizonezko euzkotar abertzaleak, benetan nabaituko ba'leu, emakume zindo gogo-indartsu, sendi-eraltzalle-on orren bearra aberria gaizkatzeko, ez esan neri artuko ez leukenik, aztzen ez duan ardura berezia, arazo onetan.

Ez det ukatzen arazo onek gizona ainbat emakumea beartzen duanik; beartzen du, bear-izan au igarri duan guzia; igarri degunez, igarrita gaudenok beartuta gauden bezela. Eta nere aldetik ez det ukatuko, bestera, pozik aitortzen det, nere ekiñean gizonen aldetik artu izan detan laguntasuna; nere ekin aul au ontzat artzen dutela azaldu izan didan laguntasuna; euzko gogoaren gaizkakundeak orduratzen ditula, azaldu izan didan laguntasuna. Baña ez da iñor arrituko, arazo onetan ekiteko, lapurretan bezela artzen detan nere idazkortz txiroa beste izkillurik ez detan onek, emakumeak aberriari galbideratz dacion bultzea igarrita, neure eziñean alde guztietara oju egiteaz; aberriko ainbat eta ainbat gauzatzaz ain zindo arduratzen dan gizonari, sendi-eraltzalle dan emakumeaztaz arduratzera didar egiteaz; ez beintzat nik uste.

◇◇◇

Beste zerbait ere esateko "T. T. T."-k bide ematen dit bere idazkiaren izen-buruakin gañera: "Urten bediz emakumiak, baña euren ixakerea galdu barik".

¿Zeri deitzen diozute gizakumeak, gure ixakerea? ¿Zer da zuentzat "emakumearen ixakerea"? Onetzaz, nik ustea baidet; baña nere ustea, gizonen gure ixakereatzazko egiñenen aurka egoten da askotan.

Etzan besterik bear, sendiaren kaltean, emakumearen bere osasunaren kaltean, eta onekin abendearen kaltean, nagusien sakelak obeto betetziarren, gizonezkoak bastertuaz, emakumeak lanean ipintzen dituzten ainbat eta ainbat ola eta lantegi, gure aberrian ixilik jasatzen ditugun garayan; gizasemien eskuetan bear litzakezan ainbat eta ainbat arazo eta lan emakumearen eskuetan utzitzen diran garai abetan; alde ontatik, bear bezela beintzat, emakumearen izakereari jaramon gutxi egiten zayon garai abetan; aberri-aldez emakumearen ekiña eskatu degun orduko, abertzaleak gurekiko beste ezertan azaltzen ez dituzten kezkak onetarako azaltzea; eta berriz diot: ¿zer aitzen dezute gizasemeak emakumien izakereatzaz?

Esango didate baita, ludiaren oraingo bizikereak eskatzen duala, zenbait gauza jasantzea; ala da, bai; baña baita ludiaren oraingo bizikereak, gure aberriaren oraingo gaitzak, eskatzen digute gaitz oyei, kalte oyei bidera irtetea; igarri gabe, geldika-geldika emakumea senditik kentzen ari diran zenbait kalteri bidera irtetzea; naiz ta onetarako emakumeak berak atadira irten bear izan.

Eta ez naiz, emakumeak gizonak bezela zenbait lan eta arazo bere gain artzearen aurka. Iñork bezin ondo dakit au zein bearreko zaigun; artian gastetxoak giñala sendi burua Beragantuta, bizi-bearrean Jaungoiko alegindu arazi digunok ondo ikasi bear izan degun egia dalako.

Batere ona dan emakumeak, bere bearkuna sendian dagola, argiro ezagutzen du, Jaungoikoa'k bere biotzian ipiñi dion ama izateko naikidan; beste asko bezela, Jaungoikoa'ren eskutu bat dan naikida orretan; emakumeak zenbat eta geyago bere biotza Jaungoikoa'gan ipiñita daukan, ainbat eta garbi eta aratzago beregan nabaitu oi duan ama izateko naikida eder orretan.

Orrengatik ez dezute gizaseme abertzaleak. Sabiu'en ikurrinpera emakumeak ekartzeko bildurrik bear; berak gauza guzien gain Jaungoikoa'gana beartzen gaituz; Jaungoikoa'renak izateko Bera'k gugandik eskatzen duana ezer baño len, gizasemeak bezela, emakumeak ere egin bear degulako.

Onaraño idatzita gero igartzen det, T. T. T. latz-samar erantzun dizudala; etzan au nere naya eta azketsi. Emakumeak aberriaganatzeko arazoa gizasemeak, geuk ez eze, ain arduragabetu dutela eldosteak beste gabe olde-txardun ipintzen nau. Baña zuk abintzen didazu zuen aldetik eragozpenik ez dezula arkituko. Entzun T. T. T., zuen arduragabekeria, gure lanarentzat eragozpen bat da

TENE

Arnas-artzia

Ona emen bein burdin-bidian entzundako barriketa bat, nor-edo-nori balijo lekijona:

—Andria, zure semia da mutiko ori?

—Bai, jauna.

—Zenbat urte dauz, bederatzi-amar?

—Ez, geyago jauna. Amabi urte jorralaren ogetabostian, Samarkos egunian.

—Umiago dirudi ba!

—Egija esateko ezta mutil andija, baña berau badua ez gexo ez sendo pitin-pitinka azten; aspaldijon bape ezta azi.

—Len gatxen bat euki ete dau?

—Ez, egundo eztau miñik ixan iñundik... ezta, txiki?

—Ezta... diño umiak.

—Eta bazeki, jauna, zelako alaya dan! negar gitxi; aboa beti erdi-zabal; bere agin politak zuri-zurijak agirijan, irribarria ezpanetan...

—Bai, zarrak diñoena: barria osasun. Orraiti, esaistazu, eztau sekulan estulik ixaten?

—Batzuetan pixkat bai, jauna; oso gitxi.

—Ai, ori beste gauza bat da.

—Zer beste gauza?

—Arren, andria, aitu eixu, mediku zar bat nozu ta urtiak gauza asko erakutsi dauste. Bixi-ixatia lako irakaslerik eztozu; jakitia zerbait da, baña onerako ganeratu biar yako gixaldi luze baten argitasun zurra. Ona ba nire kontsejua; umia anditzeko, irakatsi eyozu era onian arnasa-artzen.

—Arnasa artzen?

—Etzaitez arritu. Benetan diñotzut... zure mutiko orrek eztaki arnas-artzen. Zelan-alan bai, baña ez ondo. Begituyozu. Aboa erdi-zabalik dauko eta abotik arnas-artzen dau gixajuak. Zetarako dau sudurra? Jainko maitiak eztautso alperrik eukiteko begitartian ezarri. Sudurra da arnas-artzeko egiña ta ez abua. Sudurra sarratua dagonian edo gexorik, eztot esaten; baña betiko juanian bego sudurra nausi...

—Ia, argi ipiñizu ori.

—Arnasia da birijetako, janarija sabelerako lez. Orregaitik, azkarra irauteko ondo jan biar dan lez, arnasia be sarri ta nasairo artu biar da. Bantzuzu? Nasairo...

—Parkatu jauna, bama abuak edegiera andijagua eztauko ba sudur-zuluak baño? Beraz, abotik aixe geyago.

—Itxuria bai, baña ezta alan. Gauza jakiña da, sudurrak aixe geyago batzen dau abuak baño; ortarako egiña da-ta! Orregaitik da obeto geyen-geyenian sudurretik arnasa artzia.

—Barregarrikerija da!

—Gura dozun bestekua; baña olan sendoroago bixi... Eta bestetik: abotik arnasa-artzen oituten danari bularreko gexua errazago yatorko.

—Ori zelan?

—Arnasia sudurretik sartzen danian, odol-zan bero batzuen artetik igaro biar dau. Olan epeltzen da aixe ori eta gozo-gozoa birijetara eltzen da, beragaz indarra ta osasuna dakarrala. Abotik etorten dan arnasiak ostera eztau zanik ez besterik bidian aurkitxen, berotzeko. Otz-otza eltzen da, bizi-bizija, sarkorra ta minkorra. Orduan barrua ondo ez, estula asi eta ardura artu ezik bularretiko gatxa.

—Zer egin-biar dogu ba?

—Ezta lan gatxa. Norbera asi bedi beriala sudurretik arnas-artzen. Eta gurasuak, amak batez-be, euren umiekaz eztabe onik euki biar, ume orrei sudurretik arnas-artzen irakatsi arte. Orra or eginbiarra bularreko gatx bide bat eragotzi ba'dautsozu. Baña gatx orrez ganera best batzuk be baidakaz txarto arnas-artziak. Aixia dana da ondakin, lauso, eltxo, auts eta zikinkeri utsa. Sudurrak bai-ditu bere barruan oker-une asko; oker-une orreek mokoz ezotuak dagoz, eta euretatik aixia igarotzian, bere zikinkerijak geratzen egiten dira. Gerotxuago zintz-egiten kanporatzen ditugu. Abotik artzen dogun aixiak eztau zikinkeri andirik galtzen birijetara arte. Aboko ezuak geldituten dituanak be kaltegarri yakuz, eztira ba kanporatzen, eta bai sabelera bialtzen, antxe basterrak nastu eta gexua sortzeko.

Orra or zelan itz-egin eban burdin-bidian osalari edo mediku zarrak. Aren esanaz gomutau eta balijo.

(ESKUALDUNA Bayona'kotik artuta).

Idazki-Ereduak

Jerusalen-osterean semiak amari

KAFFARNAUN—Galilea

Beti goguan zaitudan amatxo laztana: Ordu batzuk baño ez daukodaz, erri onetan egoteko, eta jakiñik gero ezin izango dodala lumarik artu, ibiltaldijak eta arazuak itxiko ez deustelako, or duaz zirri-borro batzuk.

Kaffarnaun, Jesusen egunetan erri aundija zan, sal-eroste aundija eukan, baña gaur ezebe ez da, etxe bat bakarra dago, beste gustijak birrinduta, jausita, lurpetuta dagoz Jesukristo'ren madarikaziñoia jausi zan bere gañera eta madarikaziño onen azpijan dago iñoz bere ez jagiteko.

Erri onetan bixi ixan zan Jesukristo bere azkenengo urteetan, ementxe autu eban Mateo bere apostolutzat; Mateo jezarrita eguan bere etxeko atartian, ia nor agertuten zan petxua edo kontribuziñua ordainduten, ba petxu-batzallia zan eta igarorik bertatik Jesus, jaurti eutsan begirada gozo bat, zirautsala: "Mateo, jarraitu egidazu". Eta Mateo'k dana itxi, eta ber-bertatik jarraitu eutson, Jesukristo'ren dei samur onen gañian ainbat gauza esango neukez, baña orduan ez litxake eskutitza ixango itzaldija baño, eta itzaldijak beste leku batetik egiten dira.

Erri onetan egin ebazan Jesukristo'k ainbat mirari, osatu eban perlesijaz kadenduriko gizona, osatu eban Pedro Deunaren amagiñarraba, Euntarijaren otseña. Euntari au erromatarren agintarija zan, baña agintari ona, zuzena, eta siñismen andiko gizona, eta jakin ebanian Jesukristo etorrala bere etxera gaxorik eguan otseña osatutera, urten eutsan bidera esanaz: "Jauna, ez naz ni duin zu nire etxera etorteko; berbatxu bat esaizu eta nire otseña osatuko da". Gaur egunian, Euntari au lurbira gustiko gizonik ospatsuena da, eta bere itzak egunero esaten dira munduko elexa gustijetan Jauna emotlan.

Ementxe Kaffarnaun'en Jesukristo'k lenengo bidar itz egin eban komuniño deunaren gañian eta entzule geyenak ez eutsen siñistu, batetik ezin aitu ebelako eskutapena, eta bestetik gogorregija iruditu yakelako aragija jan eta odola edatia.

Len aitatu dodan Euntarijak, judeguentzako egin eban Sinagoga edo elexa eder bat, gaur birrinduta edo lurpetuta dagoana, baña Alemaniako jakitunak etorri dira. Sinagoga lurpetua atara eta barriztetako asmoz eta laster jasoko dabela uste dot, ba ikusten dira lurpetik atara dabezan arri andi ta balijotsuak.

Gauza onek idazten naguala eta txalupa-rik geyenak ondiño itsasuan dagozala, sartu da bat-batera Kaffarnaun gain aldetik aixia bere amorru gustijan, itxasuk itxura gaiztoko aserrea artu dau, betarriekaz ikusten da txalupak ez dabiltzala ondo, batzuek bira egin dabe Tiberiade'runtz, baña beste batzuk Betsaidara duaz, ez dakigu txalupa barruan zer jazoten dan; dirautsat lagun bateri etorri gura daben, eta danok gertu, eta an guaz barriro itxaso asarratura estu dabiltzanai lagundutera, baña mariñel turkuak bildur dira eta lagunakana eroan biarrian, garoaz Betsaidara eta emen itxaron geuntsen. Danak eldu zirianian arpegijan ezautzen yaken igaro eben estualdija ¡zenbat begi gorri! ¡zenbat ule griña! ¡zenbat arpegi zuri ta illen antzeko! ¡zenbat voto edo promes egin zirian une atan! batak itoten ezpa'zan ortosik igongo ebala Tabor mendira, bestiak au ta ori emongo eutsala Antonio Deunari, urlijak onenbeste baru egingo ebazala, berendijak Nazaretera biurkeran ordu bi belaunbiko eta besuak zabalik egongo zala; bildurrez egiñiko promes edo votoak zirian eta auxegaitik Astorga'ko gotzain edo Obispo jaunak bere eskubidiagaz desegin eta azke itxi ebazan gustiak. Guk ez genduan estualdirik igaro, ba askoz lenagotik Kaffarnaun'en gengozan patxada gustijan, limon-ur gozua artuten, baña atzian geratu ziran txalupak, edo erramuetan egin ezebelako, edo nagi zirialako, ekatxak artu ebazan eta aztindu bat emon be bai.

Ekatxa arindu eta itxasua baretu zanian, bildurra kolkoan sartu yakenak, ez eben barriro sartu gura ixan txalopetan, eta alan oñez abijau giñian Magdalatik Tiberiadesera.

Betsaida da bost apostoluen jaijoterrija; Andres, Pedro, Santiago, Joan eta Filipe ementxe jaijo eta bixi ixan ziran, bostak ziran arrantzaliak, txiroak, ezjakiñak, arrantzutik kanpora tautik be aituten ez ebenak.

Magdalan jaijo zan Magdalena Deuna, erri sostorra benetan, zoijaz egiñiko etxe batzuk baño ez dagoz eta bertako notio gustijak dira txokolaten antzekuak, bildurgarrizko begiraunia daukenak, errezelo andikuak ¡zorijonekuak orrekandik urrun bixi diranak! Larregi luzatu nai agur amatxo

JON

Izparrak bidaiz

Ermu

MARKINA ERKIKO MENDIGOIZALIEL.—Igandian esaten neutzuen Lekeitio-Ondarroa-Markina-Deun Ander'ko mendigoizaliei ereixten dautsazuen datorren igandian Deun Eupeme tontorrera ibiltaldi bat egitia.

Idazki axe egin nebanian enintzan gomutetan Bergara'ko batzarrakin, eta iragarrita daguan lez izkillugin eta euzko-langilleak an batzau biar dogula, datorren igandian ezingo da egin ibiltaldirik, Azketsi, azketsi, neuria izan da errua.

¿Ez ete daikegu egin auteskunde urrengo igandian, edo, bagilla 17'an?

Egun orren zain dago Auspo-Sagu aldria; orduan ez dabe katu-epelen bildurrik eruango.

Gertau zaiteze mutillak, neskatillak gertu dauzak eta. Gertau zuek bijok be Iturriaga eta Uriguen; poz-pozik amaikegon gozak bastarretan zuberi oleski ederrak entzuteko.

¡Gora Auspo-Sagua!

¡EUUU...P!—Guk ermutarrok artu dogu asmua igandian oñez juateko Bergara'ra, uri onetan ospatuko dan batzarrera; eta dei bat egiten dautzuet Zaldibar'ko, Berriz'ko, eta Eibar'ko "Jaiki eta Lirain"-go mendigoizaliei guztiok alkar artuta juan biar dogula Bergara'ra, eta orretarako danok batu biar gara Begizuki-Zabalian. Gu, goizeko seiretako jaupa ikusita urtengo gara.

Igandian danok Bergara'ra.

ERMU-ZALE

Cadenas "TITAN"



Para TODA MARCA de Autocamiones de CUALQUIER TONELAJE de acero especial, cromo - níquel garantizado.

Cadenas para Motocicletas — Cadenas para Bicicletas.

Pelayo, 16, entlo. —BARCELONA.

"EL DEPOSITO MUEBLERO"

Abiertos sus almacenes, ofrece al público un inmenso surtido de camas, armarios, mesillas, lavabos, coquetas, sillas, cunas, colchones, etc., etc.

PRECIOS DE FABRICA :—: VISITEN Y SE CONVENCERAN

Somera, núm. 39.-Teléfono 9.367

Euzkadi'ko itxas-ontzijek nundik-nora :-: Movimiento de buques de matrículas vascas

Buque	Capitán	Situación	Para
Sota y Azna			
Bodi-Mendi	A. Aketxe	L. Riojaneiro 12	
Azirre-Mendi	F. Agirre	S. Hamburgo, 25	Amberes
Aizkarai-Mendi	E. Uriarte	S. Sagunto, 24 m.	Midlesvv.
Aizkorri-Mendi	C. Etxebarria	L. Sta. Nazaire,	
Andikzkar-Mendi	S. Arriaga	L. Amberes 17	
Aitube-Mendi	H. Gallarza	L. B. Aires, 17 m	
Altuna-Mendi	F. Oyarbide	S. B. Aires, 30 a.	Rotterdam
Alu-Mendi	B. Agirre	L. Savona, 24 m.	
Andeaka-Mendi	F. Uberoaga	L. Bilbao, 25 m.	
Anitz-Mendi	N. Solozabal	L. Newport, 16 n	Sagunto
Arantza-Mendi	T. Muñecas	S. Filadelfia, 22 n	
Aranzazu-Mendi	Arostegi	L. B. Aires, 10 n	En construcc
Aravi-Mendi		En Bilbao	
Artantza-Mendi	G. Larrañaga	L. Sagunto, 18 r	Las Palmas
Arteza-Mendi	B. de Lizarraga	S. Bahía Blanca, 1	
Arunda-Mendi	R. Cebreiro	L. Barry, 27 m.	Filadelfia
Asit-Mendi	M. Arrizabalaga	S. Sagunto, 11 r	
Asnabi-Mendi	M. Sanz	L. Santander, 30	Baltimore
Asno-Mendi	P. Sustatxa	S. Sagunto, 18 m	
Astotxi-Mendi	J. Bilbao	L. Savona, 25 m.	
Aspla-Mendi	D. Iturmendi	L. Montivideo, 24	
Astazar-Mendi	N. Izagirre	L. Barry Roads,	
Artxa-Mendi	F. Gastearana	L. Middlesbro 1	Bareiro
Atxiba-Mendi	A. Erkoreka	S. Barry, 24 m.	
Artxanda-Mendi	Egiskiza	L. Oleshausen, 2	Stockolmo
Artza-Mendi	N. Iturrizaga	S. Boton Ruge 23	
Astoi-Mendi	A. Irureta	L. Batimoire, 25 n	
Atxeri-Mendi	F. Agirre	L. Amberes, 25 m.	Génova
Atxe-Mendi	M. Lumbreras	S. Tyne, 24 m.	Amberes
Ava-Mendi	F. Mendadet	S. Montevid., 16	
Bizkarri-Mendi	I. B. Pascual	L. Sagunto, 17 r	
Beeiza-Mendi	F. Solaguren	L. Newport, 22 r	Sagunto
Corbea-Mendi	S. Jauregibeitia	S. Baltimore, 15	
Dantz-Mendi	Gabikagogeasko	L. Sagunto 20	Cartagena
Durtzar-Mendi	D. Berteria	S. Ferro, 20 m.	
Eate-Mendi	S. Asteinze	L. Bilbao 22 m.	
Ordunte-Mendi	M. Beitia	L. Bilbao, 27 m	
Unbe-Mendi	F. Garcia	L. Barry Roads, 1	
Upo-Mendi	I. Ferán	L. Spezzia, 20	
Urkiola-Mendi	O. Larruskain	L. Hornillo, 22	
Urko-Mendi	J. Susaeta	L. Bilbao, 29 m	
C. N. Vascon			
Azmuru	A. Madariaga	S. Burntisland,	
Arraiz	B. Errasti	I. Philiperille, 2	Orán
Banderas	M. Goyenechea	I. Nevport, 22	Eona
C. de Abásolo	S. Susaeta	I. Nordenh, 18	Palma
Gloria	I. Díaz	I. Spezzia, 20 r	Barry Roads
Cristina	F. Frías	S. Paimboeuf, 2	Barry Roads
Tabira	Iturrino	L. Nevvport, 29	
C M Nervión			
Olavarria	M. Eordui	L. Grangemout	Sunderland
Mar Cantábrico	S. Saitua	L. Lisboa, 24 m.	Bilbao
Mar Irlanda	J. Goitiosolo	L. Bilbao, 11 m	Amarrado
Mar del Norte	J. Pita	L. Cardiff, 22 r	
Mar Tirreno	J. Riera	S. Newport, 20 m.	Génova
Mar Mediterráneo	J. Amezkazurra	L. Newcastle, 17	O. Italia

Buque	Capitán	Situación	Para
Mar Rojo	S. Bilbao	L. Bilbao, 12 m.	Newcastle
Mar Caspio	S. Bilbao Labi	L. Nevvcastle, 27	
Mar Blanco	F. Garay	Dunkerque	Cardiff
Mar Caribe	P. Empáranza	Hamburgo	Ulcaberg
Mar Negro	J. Aldai	L. Cette, 26 m.	Huelva
Mar Adriático	D. Idarraga	S. Algeciras, 22	Filadelfia
N. Vasco-Val.			
Ebros	B. Corbera	En Almería	Amarrado
Eduardo		En Ferro	Amarrado
Fitis	J. Larrauri	L. Pornaruz, 17	
Gadir		En Barcelona	Amarrado
Nadir	E. Larrondo	L. Bilbao 27	Santoña
Amir	P. Orbe	En Almería	Amarrado
Ophir	J. Escribano	L. Almería, 26 m.	
Menhir	R. Urtiaga	L. Bilbao, 22	
M. Elanchove			
Elantxobe	H. Landa	L. Svvansea, 28	Civitavechia
Ea	P. Tellería	L. [illegible] 22.	Huelva
C. N. Bidasoa			
R. de Bikuña	A. Soteio	L. Musel, 28 m.	Valencia
Mercedes	L. Tellería	S. Musel, 21 m	Barcelnoa
M. Unión			
Jupiter	J. Urgelles	L. Emdem, 20	
Apolo	M. Arrinda	L. V. Constituc,	
Hércules	J. Arizabalaga	L. Nápoles 19 r	
Marte	E. Hurtado	S. Melilla 19	Emdem
Polo	J. Argacha	Swansea	
H Astigarraga			
Bartolo	A. Echandía	S. Troon, 28 m	Glasgovv
Bachi	A. Cano	L. Savona, 28 m	
Manuchu	A. Cos	S. Benisaff, 20	Glasgovv
Tom	I. Sertucha	S. Tyne, 29 m.	Italia
Gaudi	F. Corcóstegui	S. Marsella, 20	Hornillo
Altos Hornos			
Jaime Girona	M. Emaldi	L. Bilbao	San Esteban
P. R. S. Pedro	D. García	L. Gijón	Bilbao
José Villalonga	J. Lauzirika	L. San Esteban	Bilbao
Víctor Chavarri	R. Francés	Gijón	Bilbao
M. Urquijo	A. Diego	L. San Esteban	Bilbao
C. Zubiría	E. Echevarri	L. Valencia	Musel
M. Chávarri	J. Beitia	S. Valencia	Bilbao
de Ibarra	M. Abaitua	Musel	Tarragona
V-C. Naveg.			
[illegible]	A. Arango	L. Newcastle 25	Marsella
Lutxana	A. Noval	L. Sfax, 26	Dunquerke
Pedrosa	S. Herrera	L. Nevvport, 21	
Uribitarte	J. M. Zaldumbi	L. Barry Dok, 1	Italia

Buque	Capitán	Situación	Para
Cant. Naveg.			
Salazar	J. B. Totorika	L. Midlesbrovv 26	Nevcastle
Gobeo		En Bizkenbead	
C. N. Begoña			
Begoña núm. 2	C. Goicoechea	S. Bilbao, 28 m	Newport
Begoña núm. 3	C. Eiguren	S. Valencia, 26	Huelva
Begoña núm. 4	I. Imaz	L. Cardiff, 21	
Begoña núm. 5	J. Urruchua	L. Portalbot, 17 m	
Begoña núm. 6		En Bilbao	
Guipuzkoana			
Yandiola	A. Mendezona	S. Sfax, 20 m.	Burdeos
Galea	S. Saralegui	S. Sfax, 20 m.	Burdeos
Sáinz e Inch.			
Sebastián	F. Zugazabeitia	L. Nantes, 17 m	Cardiff
Delfina	D. Yarto	L. Valencia, 26 m.	Les Falaises
Auxiliar Mar.			
Galdames	F. de Iturri	L. Middlesbro,	
Guernica	A. Quevedo	L. Barcelona, 7 r	
Mendialdua C			
Rufina	A. Garteiz	L. Burdeos, 20 m.	Bilbao
María Antonia	J. B. Zubieta	L. Newport, 30 a.	Argel
N. Euzkera			
Durango	J. Solabarrieta	S. Hornillo, 24 m.	Newport
Ramón	L. Latxiondo	S. Gibraltar, 28	Sevilla
Claudio	O. Solaguren	L. Portalbot, 20	Burdeos
Zugadi y Co.			
Gure	C. Ruiz	S. Burdeos, 22	Alicante
Izaro	E. Plaza	L. Huelva 23 m.	Musel
N. Mundaka			
Guipúzcoa	J. Arana	L. Rouen, 24 m.	Barry
Alava	A. Oyarbide	L. Bilbao, 27 m.	Nevvport
Navarra	P. Ruiz	L. Garston, 27	
Marít. Bilbao			
Achuri	A. Mayona	S. Penarth, 28	Hamburgo
Sendeja	Ormaetxe	L. Middlesbrovv	
Zabalbide	V. Rentería	L. Sfax, 24 m.	Sousse
Naviera Iturri			
Iturri-Patxo	I. Ikaza	L. Manchester,	
Iturri-Ederra	G. Asteinza	S. Svvansea, 28	Avilés
Iturri-Urdiña	I. Ugalde	L. Bilbao, 15 m.	Casa Blanca
Iturri Gazte		En Alicante	
Iturri-Gane		L. Alicante 29 r	
Iturri-Zuri		En Alicante	
N. Bizkaya			
Albia	F. Saras	S. Santander, 26 r	Cardiff
Abando	S. Santamaría	S. Bilbao, 28 m.	Cardiff

Buque	Capitán	Situación	Para
N. Bengolea			
Azpeitia	J. C. Izpizua	En Barcelona	
Arantzazu	E. Santaella	L. Bilbao, 17	
Izarra	J. B. Madariag	En Tarragona	
Carmenchu	J. Longa	En Barcelona	
Marichu	J. M. Anasagas	En Barcelona	
Sarita	L. M. Goyenech	En Barcelona	
José Esrada	N. Nachitue	En Barcelona	
Flores	F. Fengelsen	En Amberes	
A. Navajas			
Condado	T.T López	L. Barcelona, 28	Huelva
Montecillo	V. Chacártegui	S. Tampa, 25 m.	Bilbao
Peñalva	M. Goicoechea	L. Bilbao, 25 m.	
N. Elkano			
Motriko	M. Bollegui	S. Las Palmas, 9	Montevideo
Guetaria	J. M. Gandiaga	S. Palamón, 12 r	Barcelona
Donostia		En Bilbao	Amarrado
N. Amaya			
Margari	G. Solaegi	L. Barcelona, 28	Gijón
Mari	A. Zabala	S. Sagunto, 28	Melilla
Mend. y Zab			
San Salvador	P. Elordi	S. Bilbao, 27 m.	Cardiff
San Mamés	P. Ansola	L. Garston, 27 n	
N. Bermeo.			
Bermeo	S. Aguirre	L. Bilbao, 25 m.	
Chivichiaga	V. Zabala	S. Huelva, 24 m.	
Torrontero	P. Arana	L. Portalbot, 24 m.	Roven
Arichachu	J. Lafuente	L. Barry Roads,	
Atalaya	N. Learreta	L. Barcelona, 18	
Gaztelu	A. Beitia	L. Taragona, 26 m	
Santamaña	J. Gasteiz	L. Barcelona, 25	
Varios			
Marzo	M. G. del Río	L. Bilbao, 27 m	
Castro-Alén	T. Olondo	L. Briton, 21 n	La Rochelle
Mirentxu		En Bilbao	Amarrado
Juan Abrisketa	J. T. Ageo	L. Barcelona, 22	
Manu	P. Urrechaga	S. Brake, 26 m.	Barry Roads
Jacinto Suárez	E. Larrazabal	S. Sunderland, 9	Roscoff
Retuerto	Urreiztieta	L. San Esteban	Santander
Lapis	M. Lezama	L. Torrevieja, 2	Bilbao
Teresa	L. Atxirika	L. Bayona, 20	
Eusebia del Vall	C. Foruria	L. Riemen	Santander
Compostela	P. Gorriño	En Bilbao	Amarrado
María Victora	F. Zaragoza	L. Cardiff, 22 m.	
Aldecoa	M. Aldekoa	L. Galveston, 18	
Bizkor	S. Arrandiaga	L. Briton, 22	
Iberia	J. B. Arostegi	L. Musel, 2 m.	Bilbao
Ignacio	M. Camio	L. Avilés, 20 n	Tarragona
Regato	A. Gorrotxategi	L. Barry R., 27	
Otzari	M. Pascual	L. Potalbot, 22 m.	Penarth
María Tere	J. R. Echevarri	S. Glasgovv, 29	Bayona
Consuelo	I. Bilbao	L. Cardiff, 18 n	Venecia